

### OSOKO BILKURA 2022-05-26

**Organoa:** Udal Plenoa

**Izaera:** Ohikoa

**Deialdia:** Lehena

**Eguna:** 2022-05-26

**Ordua:** Hasiera 18:30etan.

Bukaera 18:50etan.

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Iزارo Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

#### Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

#### Ez dira bertaratu:

- .- Alaitz Kortabarría Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Jon Kepa Guericagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)

#### AZTERGAIK

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-04-28ko ohiko osoko bilkuraren akta, (4.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 26.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udalak salerosketa bidez, lokal/etxebizitza bat erosteko kontratazioaren esleipena onartzea, Emakumeen Etxea izateko helburuarekin, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 10ean.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 10ean.

5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2021. Urteko ondasunen inbentarioa eguneratzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 16an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza kontratua aldatzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 4an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko herrian etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea eta prozedura ireki eta erregulazio harmonizatukoa bidez esleipen prozesua abiaraztea, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 18an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Oñatiko herriko jai eguna izendatzeko proposamena onartzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 23an.
9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lanpostuen zerrenda eta aurrekontuen langile-plantilla aldaketa onartzea, HAZ-eko lanpostuak (koordinatzailea eta administrariak) sortzeko eta kontuhartzaitzako administrari plaza bat HAZera atxikitzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 23an.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Goienagusi kultur elkartearen arteko hitzarmena onartzea, dirulaguntza zuzena eta jabari publikoaren emakida barne onartzea, Oñatiko Esperientzia Gelaren ekimena martxan jartzeko, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udalaren jabetzakoak diren Foruen Enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakien 2 eraikinen erabilera Txantxiku Ikastola Kooperatibaren aldekoaren lagapena eguneratzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.
12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko hitzarmena, Euskaraldiaren antolaketan eta dinamizazioan lankidetzan aritzeko onartzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.
13. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Euskara Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarriak aldatzea eta 2022ko deialdia onartzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.
14. Hala badagokio, presako gaiak.
15. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
16. 2022ko apirilaren 25tik 2022ko maiatzaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 430 zenbakitik 555 zenbakira.
17. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (9, 10. , 11. Eta 12. Saioak).
18. 2021eko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.
19. 2021eko ekintza planaren berri ematea.
20. 2021eko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.
21. Galderak eta eskaerak.

2

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

#### BILERA:

#### 1.- Onartzea, hala badagokio, 2022-04-28ko ohiko osoko bilkuraren akta, (4.2022).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2022ko apirilaren 28ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

**2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 26.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Interes bereziko obrak.

2022ko apirilaren 26an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“3.- Interes bereziko obrak: [redacted] jauna, [redacted] eta [redacted] baserrietako obrak

[redacted] jaunak eskatu du [redacted] eta [redacted] baserrietako([redacted] eraberritze-lanak egiteko obra-baimena. Aldi berean eskatu du, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

*Kontu-hartzaileak zera dio:*

a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obraren inguruko aldeko irizpena Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen 2022-04-19ko bilkuran jasotzen da.

c) Osoko Bilkuran obra interes berezikotzat hartuko balu, Kontu-hartzailearen iritziz, Gordoa jaunaren obrak betetzen ditu Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarien 3. A) II i puntuan jasotako baldintzak.

*Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:*

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea [redacted] jaunak eskatu dituen [redacted] eta [redacted] baserrietako ([redacted]) eraberritze-lanak. Ondorioz, %90eko hobaria aplikatuko litzaieke.”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea [redacted] jaunak eskatu dituen [redacted] eta [redacted] baserrietako ([redacted]) eraberritze-lanak. Ondorioz, %90eko hobaria aplikatuko litzaieke.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udalak salerosketa bidez, lokal/etxebizitza bat erosteko kontratazioaren esleipena onartzea, Emakumeen Etxea izateko helburuarekin, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 10ean.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Udalak salerosketa bidez, lokal/etxebizitza bat erosteko kontratazioaren esleipena onartzea, Emakumeen Etxea izateko helburuarekin.

Jone Arriolabengoa Martiarena (Berdintasun batzordearen idazkaria eta teknikaria) 2022eko maiatzaren 10ean egindako Berdintasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

*“7.1. Emakumeen etxearen erosketa proposamena onartzea*

*2.022ko otsailaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz, Oñatiko Emakumeen etxea izango dena bertan kokatzeko Udalak higiezin bat erosteko kontratazio prozedura abiatu zuen.*

*Martxoaren 1etik martxoaren 30a bitartean jende-agirian egon den epean eskaintza bakarra jaso da : [REDACTED] izenean. 2022ko apirilaren 6ako bileran ireki zen 2. kartazala ( balio judizioen menpeko eta balorazioaren berri eman zen apirilaren 27ko bileran, bilera horretan proposamen ekonomikoa ireki zen.*

*Baldintza Pleguko irizpideen arabera Epaimahaiak Kontratu Legeko 150. artikulua arabera aurkeztu den proposamena sailkatu zuen jaso duen puntuazioaren arabera eta honako sailkapen hau onartu zen:*

Eskaintza	Balorazio teknikoa	Eskaintza Ekonomikoa	Guztira
[REDACTED]	31 pto	51 pto	82 pto

*Dokumentu guztiak aurkeztuta, 2022ko maiatzaren 6an Kontratazio Mahaia bildu ondoren honako proposamena egin zuen: Behin betiko esleipena [REDACTED] eta [REDACTED] eta [REDACTED] andreen alde egitea.*

*Kontratazio atarian dago gaiaren inguruko dokumentazio osoa.*

*Hala, berdintasun batzordera bideratu da gaia, honek esleipen proposamena onar dezan. Esleipen proposamena onartu da.”*

2.022ko otsailaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz, Oñatiko Emakumeen etxea izango dena bertan kokatzeko Udalak higiezin bat erosteko kontratazio prozedura abiatu zuen.

Martxoaren 1etik martxoaren 30a bitartean jende-agirian egon den epean eskaintza bakarra jaso da paperean eta eskaintza elektronikorik ez da jaso:

1.- [REDACTED]

2022ko apirilaren 6ako bileran ireki zen 2. kartazala ( balio judizioen menpeko eta balorazioaren berri eman zen apirilaren 27ko bileran, bilera horretan proposamen ekonomikoa ireki zen.

Baldintza Pleguko irizpideen arabera Epaimahaiak Kontratu Legeko 150. artikulua arabera aurkeztu den proposamena sailkatu zuen jaso duen puntuazioaren arabera eta honako sailkapen hau onartu zen:

Eskaintza	Balorazio teknikoa	Eskaintza Ekonomikoa	Guztira
[REDACTED]	31 pto	51 pto	82 pto

Baldintza Zerrendaren 2.2. puntuaren arabera, Kontratazio mahaiak 7 laneguneko epea eskaini zion aurkeztu behar zuen dokumentazioa aurkezteko.

Horren arabera, 2022ko maiatzaren 5ean, M<sup>a</sup> Cruz Illarramendi andreak dokumentu hauek aurkeztu ditu:

- 1.- [REDACTED] eta [REDACTED] eta [REDACTED] andreek Gizarte seguratzan eta Ogasunean zorrik ez duen egiaztagiria
- 2.- Jabetza Erregistroaren ohar soila, finkak kargarik, kargarik eta urbanizazio-kuotarik ez duela adierazten duena kasu honetan ez dute aurkeztu lehengo kartazaleko dokumentazioekin batera aurkeztua zutelako
- 3, OHZren ordainketan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria, azken ordainagiria (560,18 uro/ Santander Banketexean) 2021eko ekainaren 4ko dataz ordainduta.

2022ko maiatzaren 6an Kontratazio Mahaia bildu ondoren honako proposamena egin zuen: Behin betiko esleipena [REDACTED] eta [REDACTED] eta [REDACTED] andreen alde egitea.

Ikusita pleguen 1.9ko klausulan adierazten dela Kontratazio-organoa Udal Osoko Bilkura dela, nahiz eta SPKLren 2. xedapen gehigarriko 9 atalak honakoa dioen: *“Toki-erakundeetan, alkateei eta toki-erakundeetako presidenteei dagokie kontratu pribatuak egiteko eskumena, bai eta horien ondasunen gaineko emakidak esleitzekoa eta ondare-legeriari lotutako ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzekoa ere, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuak, 100.1 artikuluan zehaztutako moduan, ez badu gairiditzen aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10, ez eta hiru milioi euroko zenbatekoa ere, ondare hori eta besterentzea gairiditzen ez duenean.”*

Baldintza zerrendako 2.1 eta 2.2 artikuluen arabera, Kontratazio Mahaiaren proposamena Kontratazio Organoari luzatu behar zaio, azken honek hala erabakiko balu aipatutako erosketa gauzatu dadin.

Ondorioz, Alkatea eta Kontratazio Mahaiako Epaimahaiburua naizen aldetik Kontratazio Mahaiaren esleipen proposamena Udal Plenoari luzatzea erabaki dut.

Gaia azterturik, Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusita eta Berdintasun batzordearen irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.-** Behin betiko esleipena [REDACTED] eta [REDACTED] eta [REDACTED] andreen alde egitea, 289.500 euroagatik Kale Zaharra 13 zenbakian kokatzen den etxea erosiz (990. Tomoa, 242. Liburua, 129. Orrialdea eta 13. Inskripzioa). Notaritzaz zein erregistroko gastuak Udalaren kontura izango dira. Saltzaileen kontura izango dira gainbalioa eta 2022ko OHZa ordaintzea.

**Bigarrena.-** Aipatutako emaitzak parte-hartzaile guztiei jakinarazteaz gain, Oñatiko Udalaren kontratazio atarian argitara ematea.

**Hirugarrena.-** Kontratuko Legeko 151.1 artikulua arabera, formalizazioa egingo da maiatzaren 27an. Ildo beretik Alkateari baimena ematen zaio Notaritzan salerosketa eskriturak sinatzeko.

**Laugarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta diruzainari jakinaraztea.

---

#### PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

**Elorza andrea.**

---

Gaia aztertuta, eta Berdintasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 10ean.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Interes bereziko obrak.

2022ko maiatzaren 10ean egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“3.- Interes bereziko obrak

Hainbat herritar eta erakundek eskatu dituzte beren eraikinetako obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapitulua 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obren lan-baimenak eta irizpenak espedientean daude.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarien 3. A) I vi puntuan edo 4 puntuan jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

**LAN BAIMENA LEIHOAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-655	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-618	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-303	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-301	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-689	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-712	LEIHOAK	25
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-718	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-727	LEIHOAK	25%

## EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
			2022-911	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-849	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-850	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-823	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-876	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022- 1086	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022- 1088	Instalazio fotoboltaikoa	95%

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

7

## LAN BAIMENA LEIHOAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
			2022-655	LEIHOAK	25%
			2022-618	LEIHOAK	25%
			2022-303	LEIHOAK	25%
			2022-301	LEIHOAK	25%
			2022-689	LEIHOAK	25%
			2022-712	LEIHOAK	25
			2022-718	LEIHOAK	25%
			2022-727	LEIHOAK	25%

## EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
-------	-----	----------	---------	------------	---------

			2022-911	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-849	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-850	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-823	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022-876	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022- 1086	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2022- 1088	Instalazio fotoboltaikoa	95%

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2021. Urteko ondasunen inbentarioa eguneratzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 16an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** 2021. Urteko ondasunen inbentarioa eguneratzea.

2022ko maiatzaren 16an egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Pertsonal eta Barne antolakuntza Batzordeko idazkaria (Izaskun Querejeta Agirre andrea), ziurtatzen duenez.

I. 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, **32.1 artikulua** dio: *“Administrazio publikoak behartuta daude beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa egitera, eta behar besteko zehaztasunez jaso beharko dituzte ondasun eta eskubide horiek identifikatzeko behar diren aipamenak, bai eta ondasun eta eskubide horien egoera juridikoa eta xede edo erabilera adierazteko behar direnak ere.”*

Gainera lege horren **36.1 artikulua** honakoa arautzen du: *“Administrazio publikoek dagozkien erregistroetan inskribatu behar dituzte beren ondareko ondasunak eta eskubideak, herri-jabarikoak edo ondarekoak izan, inskribatzeko modukoak badira, bai eta erregistro horietara sarrera izan dezaketen haiei buruzko egintza eta kontratu guztiak ere. Hala ere, inskripzioa aukerakoa izango da administrazio publikoentzat, hipoteka-legeriaren arabera inskriba daitezkeen errentamenduen kasuan.”*

II. 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen dueña, bere **86. Artikulua** honakoa arautzen du: *“Toki-erakundeak behartuta daude dagozkien ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratua eratzera. Inbentario horren kopia bat Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei bidaliko zaie, eta urtero zuzenduko da, korporazioa berritzen den bakoitzean egiaztatuz.”*

III. 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen dueña, honakoa xedatzen du:



**17.1 artikulua:** "Toki-korporazioak behartuta daude beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitera, edozein dela ere ondasun eta eskubide horien izaera edo eskuratzeko modua."

Inbentarioaren edukari dagokionez, hau dio **18. artikulua:**

"Inbentarioan bereizita jasoko dira, izaeraren arabera, eta epigrafe hauen arabera multzokatuko dira:

1. Higiezinak.
2. Eskubide errealak.
3. Higigarri historikoak, artistikoak edo balio ekonomiko handikoak.
4. Korporazioaren balore higigarri, kreditu eta eskubide pertsonalak.
5. Ibilgailuak.
6. Azienda.
7. Aurreko enuntziatuetan sartzen ez diren higigarriak.
8. Ondasun eta eskubide itzulgarriak."

**33. artikulua:**

"1. Inbentarioaren zuzenketa urtero egingo da, eta bertan jasoko dira urte horretan ondasun eta eskubideek izan dituzten gorabehera guztiak.

2. Egiaztapena egingo da korporazioa berritzen denean, eta emaitza dokumentuaren amaieran jasoko da; hala ere, akta gehigarria egin ahal izango da, irteten diren kideentzat eta, dagokionean, sartzen direnentzat sor daitezkeen erantzukizunak mugatzeko."

**34. artikulua:**

"Toki-korporazioko osoko bilkura izango da organo eskuduna dagoeneko eratuta dagoen inbentarioa onartzeko, eguneratzeko eta egiaztatzeko."

**35. artikulua:**

"Inbentario eta balantzeen liburuan, toki-erakundearen ondasun, eskubide eta akzioak eta horien aldaketak jasoko dira urtero, bai eta aktiboaren eta pasiboaren egoera ere, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko benetako ondarea zehazteko."

**73. artikulua:**

"Toki-korporazioek ezin izango diete amore eman euren ondarea osatzen duten jabariari eta gainerako eskubide errealei eragiten dieten demanda judizialei."

IV. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, bere 68. Artikuluan honakoa arautzen da:

"1. Toki-erakundeek beren ondasunak eta eskubideak defendatzeko behar diren ekintzak egiteko betebeharra dute.

2. Eskubide zibil eta politiko guztiak dituen edozein herritar eskatu ahal izango dio erakunde interesdunari eskubide horiek egikaritzea. Errekerimendu horren berri emango zaie akzioen eragina jasan dezaketenei, eta errekerimendu horrek hogeita hamar egun baliодunez etengo du akzioak egikaritzeko epea."

VI. Sastein enpresak, 2022ko apirilaren 19an igorri du Oñatiko Udaleko inbentarioaren eguneratzea eta balorazioa eta mugimenduak, 2021/12/31ko datara itxita. Laburpena hau izango litzateke:

Enpresak, bere lanketan inbentarioan alta (5.410.373,70 balio) eta baja (204.961,98 balioa), bere balioarekin, eman behar diren ondasunak zehazten ditu.

Bere osotasunean, 2021. Urteko Oñatiko Udalaren ondarea osatzen duten jabetzen balioa hau izango litzateke:

BERRIA JARTZEAREN KOSTUA: 238.438.677,24 €  
MERKATUKO BALIO ERREALA: 142.588.069,96 €

Laburturta hauek dira balioak:

0. ERABILERA-LAGAPENEAN DAUDEN ERAIKINAK 0,00

1. HIGIEZINAK 126.279.708,09
2. ESKUBIDE ERREALAK 3.729.290,41
3. ONDASUN HISTORIKOAK 391.022,64
4. BALORE HIGIGARRIAK 5.777.483,32
5. IBILGAILUAK 508.289,89
6. AZIENDA 1.879,81
7. BESTE HIGIGARRIAK 3.675.964,95
8. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK 2.224.430,85

Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.-** Ondasunen inbentarioa eguneratzea, Sastein enpresaren 2022/04/19ko txostenean proposatutako moduan.

**Bigarrena.-** Eguneraketa hauen akordioa Eusko Jaurlaritza eta Estatuko Administrazioari jakinaraztea.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Idazkaritza sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza kontratua aldatzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 4an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza kontratua aldatzea onartzea.

2022ko maiatzaren 4an egindako Hirigintza batzordearen aktak, Iñaki Landa Azkoaga, Batzordeko idazkaria eta udal arkitektoak sinatua, honela dio:

*“7.- Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza kontratua aldatzea.*

*2018ko abuztuaren 1eko Alkate Dekretuz, Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza zerbitzuaren kontratazio espedienteari hasiera eman zion Udalak, deialdia eta baldintza zerranda onartuz.*

*2018ko urriaren 11an egindako bileran, Udal Tokiko Gobernu Batzordeak LKS Injenieria S,Coop. enpresari esleitu zion proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza zerbitzua 240.000 €-tan (BEZ kanpo).*

*Kiroldegiko lanak 2019ko ekainaren 27an bost lotetan esleitu ziren eta uztailaren 22an sinatu ziren lan-kontratuak. Horrela bada lanak abuztuaren 1ean hasi ziren eta 2021eko uztailaren 21an behin-behineko obra amaiera akta sinatu zuten enpresek eta Udalak, lanen plangintzan jasota zegoena baino zazpi hilabeteko atzerapenarekin. Bestalde, enpresa esleipedunek oraindik ere zenbait lan amaitu eta obrako akatsak zuzentzeko dituzte. Ondorioz, lan zuzendaritzak epe horretan guztian obrako lanak zuzentzen jarraitu ditu, eta epe labur batean zuzentzen jarraitu beharko ditu, lanak amaitu eta lanen amaierako behinbetiko akta sinatu eta obra jaso bitartean.*

*Horrenbestez, KREAN S,Coop enpresak (LKS Injenieria S,Coop. izen korporatiboa zuena) aipaturiko lan-zuzendaritza lan gehigarriak egiteagatik, lanak iraun bitartean eta horiek amaitu arte, 29.531 €-ko (BEZ kanpo) aurrekontu proposamena luzatu dio Udalari.*

Hori guztia dela eta, kiroldegiko lanen exekuzio denbora luzapenaren ondorioz, lanen zuzendaritza zerbitzua ere luzatu beharrean du Udalak, zuzendaritza lanak ezinbestekoak baitira lanen exekuzio egokia ziurtatzeko. Horrek zerbitzu-kontratuaren epealdian eta horren ordain-sarian aldaketa egitea dakar. Proposatzen den aldaketak ez du gainditzen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 205.2.b) artikuluan jasotzen den kontratuaren zenbatekoaren %50-eko (BEZ kanpo) langa. Bestalde, zuzendaritza zerbitzua gehitu izana, obra luzatu izanaren ondorio zuzena da, eta hori aurreikusi ezin zitezkeen arrazoiengaitik gertatu da. Azkenik, aldaketak ez du moldatzen kontratuaren izaera orokorra.

Gaia aztertu ondoren, ondorengo erabaki hauek hartzea proposatu du Hirigintza Batzordeak:

LEHENA.- Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza zerbitzuaren kontratua aldatzea.

BIGARRENA.- KREAN S,Coop enpresaren proposamena teknikoa eta aurrekontua onartzea: 29.531,00 €-ko (BEZ kanpo).

HIRUGARRENA.- Lanen zuzendaritza zerbitzua kiroldegiko lanak amaitu eta lanen amaierako behin-betiko akta sinatu arte luzatzea.

Aipatutako Erabakiaren berri emango zaio KREAN S,Coop enpresari, dagozkion alegazioak egin ditzan.”

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Aipatu lanen interes publikoa ukaezina da, hau da, udal eraikin baten obra bat delako.

Proposatzen diren aparteko lanak egitea, SPKLren 204. artikuluan ezarritako modu eta edukiarekin bat ez datorrenez, SPKLren 205. artikulua xedatutakoari jarraitu beharko dio.

SPKLren 205. artikulua araberak,

“1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) Justifikazioa izatea artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.

b) Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozkiz ezinbestekoak diren aldaketak sartzerak.

2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikulua honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:

a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutako obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:

1.a Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatuz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handitzat hartuko kontratatuz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.”

SPKLren 191.1 artikulua xedatutakoaren arabera, prerrogatibei buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan, kontratatari entzutea egin beharko da. Enpresak aldaketari oniritzia eman dio dagoeneko, beraz, ez da behar berriz entzunaldia ematea.

Aurreikusten diren aparteko lanek lizitazio aurrekontutik %12,30ko igoera eragin dute, beraz, SPKLren 205. artikulua xedatutakoa betetzen du.

Iraupenari dagokionez, kontuan hartu behar da SPKLren 29.7 artikulua xedatzen duena:

“Aurrez xedatutakoa gorabehera, obra-kontratuen zein hornidura-kontratuen osagarri diren zerbitzu-kontratuek 4. apartatuan aipatutakoa baino iraupen-epe luzeagoa izan ahalgo dute, baina ez da izango kontratu nagusiaren iraupena baino luzeagoa, kontratu nagusia likidatzearekin zerikusia daukaten lanak hartzen dituzten kontratuen kasuan izan ezik; horien azken epea kontratu nagusiarena baino luzeagoa izango da, lanok amaitzeko behar den beste denboraz.

Apartatu honek aipatzen duen kontratu osagarriaren hasiera eten egingo da dagokion kontratu nagusia egikaritzen hasi arte, non eta kontratu osagarriaren objektutik eta edukitik heldu den arrazoi justifikaturik ez dagoen.

Kontratu osagarriak beste kontratu baten -kontratu nagusiaren- mende daudenak dira, eta, kontratu osagarri izango badira, gainera, haien objektua beharrezkotzat jo behar da kontratu nagusi horren prestazioa edo prestazioak zuzen gauzatzeko.”

Gainera, kontuan hartu beharko da SPKLaren 315. Artikuluak arautzen duena.

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen irizpena kontuan hartuta, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza zerbitzuaren kontratua aldatzea, lizitazioaren unean aurreikusi gabeko eta gerora sortutako beharreetatik proposatua (SPKLren 205.2.a artikulua).

**Bigarrena.-** Aldaketa kontratuak suposatzen duen gastu igoera onartzea, 29.531 euro BEZ kanpo (adjudikatutako prezioetik %12,30 ko igoera).

**Hirugarrena.-** KREAN S,Coop enpresaren proposamen tekniko eta aurrekontua onartzea: 29.531,00 €-ko (BEZ kanpo).

**Laugarrena.-** Lanen zuzendaritza zerbitzua kiroldegiko lanak amaitu eta lanen amaierako behin-betiko akta sinatu arte luzatzea.

**Bostgarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta interesdunari jakinaraztea.

**Seigarrena.-** Erabaki hau udal honetako kontratatzailearen profileen argitaratzea eta kontratu armonizatua izanez gero, DOUE-n argitaratzea.

---

Gaia aztertuta, eta Hirigintza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko herrian etxez etxe laguntza zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea eta prozedura ireki eta erregulazio harmonizatukoa bidez esleipen prozesua abiaraztea, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 18an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko herrian etxez etxe laguntza zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea eta prozedura ireki eta erregulazio harmonizatukoa bidez esleipen prozesua abiaraztea.

2022ko maiatzaren 18an egindako Ongizate zerbitzu batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Oñatiko Gizarte Teknikaria eta Batzordeko idazkariak (Itxaro Leibar Sanpedro andreak), ziurtatzen duenez:

*ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2022ko maiatzaren 18eko dataz Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:*

*Esp. Zb.: GZ-2022-K2*

**1.- Oñatiko herrian etxez etxe laguntza zerbitzuaren kontratazioa, prozedura ireki bidez.**

**Kontratazioaren beharra eta egokitasuna:**

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, bere 22. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Sistemaren Katalogoa ezartzen du. Bertan jasota daude euskal administrazio publikoek eskaini behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak, eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretuak, 2015eko urriaren 6an onartutakoak, 33. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen antolaketa zehazten du. Bigarren atalean, 1.2 puntuan esaten du udalek eskumena izango dutela **Etxez Etxeko Laguntza** bermatu eta emateko.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, prebentzio- eta laguntza-izaerako lanak egitean eta menpekotasun egoeran edo menpekotasun arriskuan dauden pertsonen laguntzean datza; baita ere, arrazoi fisikoengatik edo psikikoengatik, nor bere kabuz baliatu ezin diren pertsonen laguntzean ere, kasuaren arabera etxeko laguntza emanaz edo laguntza pertsonala eskainiz

Etxez etxeko zerbitzua 2018ko urriaren 4ko osoko bilkuran onetsitako udal Arautegian (2018ko urriaren 19ko GAO) ezarritako balditzetan ematen da.

Etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaile direnen etxeetan emango da zerbitzua, Oñatiko udalerrriaren barruan, Ongizate Sailak ezarritako egunetan eta orduetan, kontratuaren esleipena indarrean dagoen bitartean.

Oñatiko Udalaren etxez etxeko laguntza-zerbitzua, azken aldiz, 2018ko martxoaren 7an esleitu zen, Udaltzaren erabaki bidez. Lizitazioaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2018ko martxoaren 20an, eta 2018ko martxoaren 10eko Europa Elkarteko Egunkarian eta Oñatiko Udalaren kontratazio atarian. Lizitazioa bideratu ondoren, 2018ko uztailaren 26ko Udal Plenoaren erabakiz, zerbitzua Eulen Servicios Sociosanitarios S.A enpresari esleitu zitzaion eta 2018ko urriaren 1ean sinatu zen kontratua (bi urte + beste bi urte luzapena)

Zerbitzu hori emateko Oñatiko Udalak langilerik ez duenez, kontratatu egin behar da

**KREDITU NAHIKOA IZATEA**

Oñatiko Gizarte Zerbitzuen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa egiteko kreditu nahikoa du Oñatiko Udalak 2022. aurrekontuetan, hain zuzen:

- 1.0500.227.231.10.04 2022 (156)
- 1.0500.226.231.40.98 2022 (172)
- 1.500.212.231.00.01 2022 (5126)

Kontu sailaren eta bere lotespen-mailaren kargura.

**AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**

**Aurrekontua:** Kontratuaren eskaintza-aurrekontua, unitate-prezioetan, hauxe izango da:

	Lanegunetako orduaren prezioa (BEZa gabe)
2022ko urriaren 1etik abenduaren 31ra	28,70
2023ko urtarrila 1etik abenduaren 31ra	30,40
2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra	31,90
2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra	32,60
2026ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era	34,00

- Jaiegunetako orduaren prezioak automatikoki ezarriko dira, erakunde esleipendunak (Oñatiko Udala) eskaintako orduko prezioari (BEZik gabe) % 38 aplikatuz.

Kontratuaren **aurrekontu estimatua urte bakoitzeko** honako hau izango litzateke:

--	--	--	--

Urtea	Nagusia	BEZ A	GUZTIRA
2022ko urriaren 1etik abenduaren 31era	200.900,00€	8.036,00€	208.936,00€
2023. urtea	866.400,00€	34.656,00€	901.056,00€
2024. urtea	909.150,00€	36.366,00€	945.516,00€
2025. urtea	929.100,00€	37.164,00€	966.264,00€
2026ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era	765.000,00€	30.600,00€	795.600,00€
	3.670.550,00€	146.822,00€	3.817.372,00€

- Kalkulu hauek urteko 28.500 ordurekin aterata daude.

Ez da bermatzen zerbitzua ematea zenbateko horren truke. Zerbitzua adjudikatuko da eskainitako aleko preziotan.

Egikaritze-unitateka finkatutako prezioa kontratuaren xedean sartutako entrega- edo prestazio-kopuru osoa zehatz-mehatz zehaztu gabe dagoenez, kontratua egin bitartean unitate horiek Administrazioaren beharren menpe daudelako, kontuan hartu behar da benetako gastua Administrazioaren benetako beharren arabera dela, eta, beraz, ez dagoela beharturik unitateen kopuru jakin bat eskatzera, ez eta gastu adierazlearen aurrekontu osoa gastatzera ere.

Aurrekontuaren kalkulua, aurreko ekitaldietako esperientzia eta eskatzen diren giza-baliabideak kontuan hartuta eranskineko txosten ekonomikoan zehazten diren gastuetan oinarritzen da.

14

**Kontratuaren balio zenbatetsia:**

- Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.749.162,50€-koa (BEZ gabe) izango da ( 2 urte)
- Luzapenen balio zenbatetsia (2 urte) + 9 hilabeteko salbuespeneko luzapena: 2.686.387,50€-koa (BAZ gabe) izango litzateke
- Aldaketaren gutxi gorabeherako balioa (%20): 734.110,00€-koa (BEZ gabe) izango litzateke
- Guztira: 5.169.660,00€-koa (BEZ gabe)
- Kontratua adjudikatu eta gero, prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak

**KONTRATUA ALDATZEA**

**Aurreikusitako aldaketak**

Kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da, baldintza hauetan:

Aldaketarako inguruabarrak:

- 1- SPKLren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, benetako beharrak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira.
- 2- Araudi berria, protokolo berriak edo zerbitzua ematean eragina izango duten prozedura berriak. Bereziki, kontuan hartuko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua.
- 3- Zerbitzu-kopurua, ordu-kopurua eta abar handitzea edo murriztea dakarten benetako premia handiagoak edo txikiagoak.
- 4- Gerora sortutako beharrianak, hala nola beste baliabide batzuk ixtea, plaza librerik ez izatea, hondamendi naturalak, osasun-krisiak edo epidemiologikoak, zerbitzu-kopurua, zerbitzu-modalitateak eta abar handitzea eskatzen dutenak.

5- Gizarte Zerbitzuen Maparen aldaketa, Gizarte Zerbitzuen euskal araudia garatuz, udalerrri bakoitzak bermatu behar dituen guztizko orduen kopurua handitzea edo gehitzea dakarrena, eta aldaketa horrek Oñatiko udalerriri eragiten diona.

6- Etxeko laguntzaren garapen berriak ekarriko dituzten esperientzia pilotuak.

7- Adinekoentzako ostatu-zerbitzu berriak abian jartzea (tutoretzapeko apartamentuak, adibidez), kontratu honen xede den etxeko arreta edota langile-arreta mota bera eman behar zaienei.

Aldaketa horiek gehienez kontratuaren prezioan izan dezaketen eragina: % 20

#### ESLEIPEN-IRIZPIDEEN JUSTIFIKAZIOA

SPKLaren 131.2 eta 145.1 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, kontratu honen adjudikazioa kontratuaren xedeari lotutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz eta kalitatearen eta prezioaren arteko loturaren arabera egingo da.

Kalitate-prezio erlaziorik onena irizpide ekonomiko zein kualitatibo batzuen arabera ebaluatuko da.

Honako irizpide hauek balioetsiz esleituko da kontratua:

#### A. MATEMATIKA FORMULEN BITARTEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

Prezioa: gehienez 51 puntu.

Astegunetako prezioa (astelehenetik zapatara), orduko: Eskaintzarik merkeenari 51 puntu emango zaizkio.

51 punturekin baloratuko da 2022., 2023. eta 2024. urteetako orduko prezioaren batez bestekoaren preziorik baxuena eskaintzen duen proposamena. Formula horretatik gainerako proposamenen puntuazioa aterako da, prezio baxuena duen eskaintzaren eta baloratutako lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatidura irizpideari aplikagarri zaion puntu kopuru osoarekin biderkatuz. Hau da,

$$Pl = Ob / Ol \times 51$$

Non-eta:

Pl: lizitatzaillearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

Ol: lizitatzaillearen eskaintza

Berez, edozein proposamen neurrigabetzat edo ausartegitza jo ahal izango da, baldin eta bere portzentajea, gutxienez, onartutako oinarri proposamen guztien portzentaje baxuenaren batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate gehiago bada, eta hori deklaratzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, bertan sartzen diren lizitatzaille guztiei aurretiaz informazioa eskatu eta gero, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza jaso eta gero.

15

#### B. BALIO JUDIZIOEN BITARTEZ NEURTU DAITEZKEEN ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK.

Baldintza teknikoak ezarritakoaz gain, bezeroei eskainitako zerbitzua hobetzeko proposamenak: gehienez 49 puntu.

Honela banatuko da atal honetako puntuazioa :

1. Zerbitzua emateko proiektua: gehienez 31 puntu

Atal honetan alderdi hauek izango dira kontuan :

Enpresa adjudikaziodunaren eta Udalaren arteko koordinazioa. (gehienez 5 puntu)

Harrera integraleko programak: (gehienez 4 puntu)

Zerbitzuko jarduerak emateko antolaketa eredia, eta bereziki baloratuko dira etxeetan langile laguntzaileak aldatzea ahalik eta gehien saihesteko hartu beharreko neurriak (gehienez 4 puntu)

Programa gauzatzeko eta erregistratzeko dokumentazio-euskarria (gehienez 2,5 puntu)

Jarduteko protokoloak (gehienez 3,5 puntu)

Informazioa besterentzako eta koordinatzeko barne-mekanismoak (gehienez 3 puntu)

Prozedurarako eskuliburuak edo Ondo lan Egiteko Eskuliburuak, enpresak egunero aplikatzeko egina edo bereganatua (gehienez 3 puntu)

Erabiltzaileari ematen dion arreta Ebaluatzeko Programak (ebaluazio- maiztasun-eta ardura-mekanismoekin) (gehienez 3,5 puntu)

Enpresak aukeratutako kalitate-programak: eredia, garapen-maila, egungo aplikazioa eta aurreikusitako aplikazioa (gehienez 2,5 puntu)

2. Langileak, kudeatzeko proiektua: gehienez 18 puntu

Langileen prestakuntza izateko erraztasuna (gehienez 6 puntu)

Formakuntza plana lan-orduan barruan izatea (gehienez 2 puntu)

Formakuntza orduak soldatapean izatea (gehienez 2 puntu)

Formakuntza saioak gertutasunean izatea (gehienez puntu bat)

Formakuntza saioak Oñatitik kanpo izanez gero, joan-etorriaren gastua ordaintzea (gehienez puntu bat)

Langileen birziklatzeko trebakuntza-jardueren proposamena ordutan: 5 puntu

Erabiltzaileen beharrei erantzuteko programa baloratuko da. Langileei zuzenduriko urteko formakuntza plana aurkeztu beharko du lizitatzailerak. Urteko ordu kopuruak eta gaia (Kontratuaren objektuarekin hertsiko lotuta egon beharko direnak) adierazi beharko dira.

Urtean 5-10 ordu: puntu bat

Urtean 10-15 ordu: 2 puntu

Urtean 16-25 ordu: 3 puntu

Urtean 26-40 ordu: 4 puntu

Urtean 40 ordutik gora: 5 puntu

Euskara ikasteko erraztasunak (gehienez 3 puntu)

Langileek euskarazko gaitasuna lortzeko enpresak jarritako erraztasunak baloratuko dira.

Berdintasunen arloan prestakuntza programa (gehienez 2 puntu)

Gehienez ere 2 puntu emango dira, prestakuntzako 4 ordu bakoitzeko puntu bana

Lan-poltsa (gehienez 2 puntu)

Enpresa kontratistaren betebeharra izango bada ere uneoro langileak edukitzea Udalaren beharrak betetzeko, baloratuko da Proiektuan sartzea lan-poltsa moduko bat; horrela behar beste bermaturik geratzen da obligazioa betetzea.

Baremazio hau aplikatuko zaio aurreko atal bakoitzari:

Bikaina: atal bakoitzeko puntuazioaren % 100

Ona: atal bakoitzaren puntuazioaren % 75

Onargarria: atal bakoitzaren puntuazioaren % 50

Nahikoa: atal bakoitzaren puntuazioaren % 25

Gutxienez: atal bakoitzaren puntuazioaren % 0

Irizpide horiek honako kontsiderazio hauei dagozkie, eskaintzen konparazioaren arabera:

Bikaina: proposamenak oso modu egokian gainditzen ditu eskatutako gutxieneoak

Ona: proposamenak eskatutako gutxieneoak gainditzen ditu, eta zerbitzua hobetzeko alderdi onuragarriak ematen ditu.

Onargarria: proposamenak modu diskretuan hobetzen ditu eskatutako gutxieneoak.

Nahikoa: proposamenak eskatutako gutxieneoak betetzen ditu, eta ez du horiek hobetzen dituen elementurik ematen.

Gutxieneoak: proposamenak ez ditu gutxieneo baldintza teknikoak betetzen edo ez da behar besteko justifikaziorik aurkezten.

Proposatutako irizpideak berdintasun, diskriminazio eza, gardentasun eta proportzionaltasun oinarriak errespetatuta formulatu dira, eta eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan ebaluatuko direla bermatzen dute.

#### **BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK**

1) Gizarte-bermeko baldintzak:

.- Lan-baldintzak betetzeko baldintzak

Enpresa esleipendunak EULEN SOCIO SANITARIOS SA-ren Hitzarmen kolektiboan, Oñatiko Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileentzat (2020ko urtarrilaren 27an 16. Zenbakian GAO-an argitaratuta) eta soldata- taularen eranskinean (2022-2024) jasotako soldata-baldintzak bete beharko ditu gutxienez edo ordezkoa, hitzarmen hori indarrean ez badago. Hori kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaie.

Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du aipatutako Oñatiko Etxez etxeko laguntza zerbitzuari buruzko (2022-2024) hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

.-Gutxieneo lan-baldintzei eta subrogazioari buruzko baldintzak.

Gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileen subrogazioa dela-eta, indarrean dagoen araudia eta lan-hitzarmen kolektiboa bete beharko du enpresa esleipendunak.

.- Azpikontratazioaren inguruko baldintzak.

Enpresa azpi kontratistak ere, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei; eta, kontratuaren exekuzio aldi



osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

.- Lan-harreman indibidualen eta kolektiboen arloko araudia betetzeko baldintzak. BAI

.- Datuen babesei buruzkoa: kontratu honek bete egin behar ditu datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia, baita eragile kontratuan ezarritako xedapenak ere: BAI

.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko baldintzak. BAI

.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak: BAI.

.- Hizkuntza baldintza bereziak: BAI

**Gaia aztertuta**, Ongizate Zerbitzuen Batzordearen oniritziarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposamen eta erabaki hau onartzea:

**Lehenengoa:** Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa prozedura ireki bidez martxan jartzeko plegu teknikoak eta administratiboak onartzea

**BIGARRENA:** Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazio honek dakartzan gastuak onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen bidez onartuko diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak kontratazio atarian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.”  
Udaleko idazkariaren 19/2022 txosten juridikoa dago espedientean, 2022 maiatzaren 23koa.

Espedientea onartzeko, kontu-hartzailearen oniritzia beharko da, SPKLaren hirugarren xedapen gehigarriak, 3. Atalean dioenaren arabera: “Fiskalizazio-lana, berriz, toki-entitateko organo kontu-hartzaileak egingo du. Fiskalizazio hori egingo da, halaber, kontratu berri bakoitzaren ondorioei buruz kontratazio-espeditentean sartzen den balioespenaren gainean, kontratu txikien kasuan izan ezik, toki-entitateak bete ditzan Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikulua eskatzen dituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak.”

Kontuhartzailearen fiskalizazio mugatuko aldeko txostena dago espedientean, 2022ko maiatzaren 19koa.

Gainera, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, Gizarte zerbitzu batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren administrazio kontratuaren kontratazio-espeditentea onartzea, prozedura ireki bidez, 5.169.660,00 euroko balio zenbatetsian (Kontratu Legeko 22. Artikuluaren arabera zerbitzu kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dago).

Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango da, eta 2 urteko luzapena aurreikusten da eta 9 hilabeteko salbuespeneko luzapenarekin (guztira 4 urte eta 9 hilabete).

**Bigarrena.** - Era berean, azaltzen du nahikoa kaudimen daukala kontratazio pleguetan ezarritako irizpideen arabera lehenengo ordainketari aurre egiteko, arestian aipatutako diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura eta 2022 urteari dagokion gastu aurreikuspena.

**Hirugarrena.-** Zerbitzu kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza tekniko zehatzen agiria onartzea.

**Laugarrena.-** Kontratuaren arduradun izendatzea, 62.2 SPKL Gizarte zerbitzuetako arduraduna.

**Bostgarrena.-** Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedura irekitzea, eta dagokion iragarkia udal honetako kontratatzailearen profilean eta DOUE-n argitaratzeko agintzea, gutxienez hogeita hamar egun naturaleko epean (Kontratuko Legeko 156.3.c artikulua arabera), nahi duenak egoki iritzitako proposamenak aurkez ditzan.

**Seigarrena.-** Kontratazio prozedura honetan beharrezkoak diren tramitezko egintzak (esleipena izan ezik) Alkateari eskuordetzea, osoko bilkurari berri emanez.

---

Gaia aztertuta, eta Gizarte zerbitzu Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Oñatiko herriko jai eguna izendatzeko proposamena onartzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 23an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** 2023rako Oñatiko herriko jai eguna izendatzeko proposamena onartzea.

2022ko maiatzaren 23an egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Pertsonal eta Barne antolakuntza Batzordeko idazkaria (Izaskun Querejeta Agirre andrea), ziurtatzen duenez.

Maiatzaren 13ko EHAAn argitaratu da Euskal Erkidegorako Lanerako Jaiegunen Egutegi Ofiziala 2023.urterako, 56/2022ko Dekretu bidez. Bertan, dioenez 2023an urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan jaieguntzat hartuko dira lan ondorioetarako -ordainduak eta berreskuraezinak izango dira- urteko igande guztiak eta ondorengo jaiegunak:

- .- Urtarrilaren 6a, Jaunaren epifania.
- .- Apirilaren 6a, Ostegun Santua.
- .- Apirilaren 7a, Ostiral Santua.
- .- Apirilaren 10a, Pazko Astelehena.
- .- Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.
- .- Uztailaren 25a, Santiago Apostoluaren Eguna.
- .- Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundea.
- .- Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.
- .- Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna.
- .- Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.
- .- Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.
- .- Abenduaren 25a, Eguberri eguna

Bestalde, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, egun horietako bat udaletako osoko bilkurek proposatuko dute eta bestea Foru Aldundiak. Horretarako Udalek hilabeteko epea dute maiatzaren 3ko 56/2022ko Dekretua argitara eman den egunetik (maiatzaren 16tik)

2023ko egutegia aztertu ondoren, San Migel eguna hau da irailaren 29a ostirala izango da eta San Inazio eguna, uztailaren 31a (Gipuzkoako patroia eta Aldundiak izendatzen duen jai eguna) astelehena.

Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.-** 2023rako herriko jai eguna izendatzea, irailaren 29a (San Migel eguna).

**Bigarrena.**- Honen berri Lan eta Justizia saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkari ematea 56/2022ko maiatzaren 3ko Dekretuak xedatzen duena betez.

---

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lanpostuen zerrenda eta aurrekontuen langile-plantilla aldaketa onartzea, HAZ-eko lanpostuak (koordinatzailea eta administrariak) sortzeko eta kontuhartzaitzako administrari plaza bat HAZera atxikitzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 23an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Lanpostuen zerrenda eta aurrekontuen langile-plantilla aldaketa onartzea, HAZ-eko lanpostuak (koordinatzailea eta administrariak) sortzeko eta kontuhartzaitzako administrari plaza bat HAZera atxikitzea.

2022ko maiatzaren 23an egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Pertsonal eta Barne antolakuntza Batzordeko idazkaria (Izaskun Querejeta Agirre andrea), ziurtatzen duenez.

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) **90.1 artikulua** honako hau xedatzen du:

*"Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak barnean hartuta.*

*Plantillek arrazionaltasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioei erantzun beharko diete, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarriko dira; langile-gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrekarekin ezartzen diren mugak gainditu. "*

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren **126.1 artikulua** honako hau ezartzen du:

*"1. Plantilla horiek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta aldi baterako langileentzat behar bezala sailkatuta dauden lanpostu guztiak hartuko dituzte, eta urtero onartuko dira aurrekontua onartzean, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan adierazitako printzipioei erantzun beharko diete. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipioekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta dokumentuak.*

*2. Plantillak honako kasu hauetan handitu ahal izango dira:*

*A) Gastuaren gehikuntza gastu arrunt hedaezinen beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuta konpentsatzen denean.*

*B) Zuzkiduren gehikuntza lege-xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo zabaltzearen ondorio denean.*

*Paragrafo honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo lege berezietan edo koitunturazkoetan jasotako muga espezifikoei.*

*3. Aurrekontua indarrean daogon bitartean plantillak aldatzeko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira. "*

II. Oñatiko udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen 2021eko abenduaren 16ko osoko bilkuran eta behin betiko argitaratu zen 2022ko otsailaren 1eko GAO-n (20. Zenbakia) eta akats zuzenketa 2022ko otsailaren 2ko GAO-n (21. Zenbakia).

III. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, aipagarriak dira artikulua hauek:

14-18 artikulua, aurrekontu orokorren gertuketa eta onespenari buruz.

21. artikulua. *“Langileen kredituak. Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako ordainketa-kredituak honelakoak izango dira: a) Toki erakundearen administrazioan eta organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantillari dagokionean.”*

IV. Langile-plantilla onartzea Osoko Bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 21. artikulua honako hau xedatzen du:

*“1. Funtzionarioei dagozkien aurrekontu-plantillak kreditu-zuzkidurak zerrendatuko dituzte, honako kontzeptu hauen arabera ordenatuta:*

*A) Talde bakoitzari dagozkion oinarritzko ordainsariak,*

*B) Maila bakoitzeko lanpostuei dagozkien destino-osagarriak,*

*C) esleituta duten lanpostuetako berariazko osagarriak, eta*

*D) Produktibitate-osagarria, gastu-programa bakoitzari dagokion langile-kostu osoaren ehuneko batean adierazia.”*

VI. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 10. artikulua honakoa xedatzen du:

*1. Bitarteko funtzionarioak dira, premiagatik eta berariaz justifikatutako arrazoiengatik, karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen direnak, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:*

*A) Lanpostu hutsak egotea, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean, gehienez hiru urterako, 4. idatz-zatian aurreikusitako baldintzetan.*

*3. Nolanahi ere, Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitarteko harremanaren amaiera, 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, eta ez du konpentsaziorako eskubiderik izango. Hona hemen arrazoiak:*

*A) Karrerako funtzionarioek lanpostua arazuko eran betetzeagatik, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.*

*B) Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea dakarten antolaketa-arrazoiengatik.*

*C) izendapenean berariaz jasotako epe baimendua amaitzeagatik.*

*D) Izendapena eragin zuen arrazoa amaitzeagatik.”*

VII. Azaldutakoagatik ondoriozta daiteke, langile-plantila udal Aurrekontuaren zati denez, onartzeko prozedura hauena bera da, baita jendaurrean jartzeko eta argitaratzeko izapidea ere.

VIII. 2020/11/26ko Osoko Bilkuran, 2021erako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendan honako aldaketak onartu ziren:

#### PLANTILA ORGANIKOAN

Sortzen diren plazak ;

I.- GIZARTE LANGILE lanpostuari dagozkion 2 plaza sortzea proposatzen da:

Plantilla organikoa: Plaza honen ezaugarriak:

Izaera: funtzionarioa

Sailkapen taldea: a2 ( edo b)

Eskala: administrazio berezia

Azpieskala: erdi mailako teknikaria

Lanpostuen zerrendan jada lanpostua sortuta dago, orain arte 3 plaza zituen, eta orain berriz 2.

II.- KIROLDEGIKO MANTENU TEKNIKARI plaza bat sortzea proposatzen da:

Izaera laborala  
Sailkapen taldea c2 (edo d)  
Miguel Angel Letamendi erabat jubilatzen denean, bere plaza amortizatu egingo da.

AMORTIZATZEN DIREN PLAZAK

.- FUNTZIONARIOEN ARTEAN:

Brigadako peoi bat, e taldekoa. bere ordez, laboralen plantillan sortu zen plaza berria (d taldean).

LANPOSTUEN ZERRENDA

EZABATZEN DIREN LANPOSTUAK

I.- Arreta pertsonalizatuaren arduraduna  
Lanpostu hori ez da bete eta ezabatu egingo da LZtik.

II.- Herri eraikinen mantenu arduraduna

ALDATZEN DIREN LANPOSTUAK

I.- brigadan titulazioak egokitzen dira; D taldekoak izanik, LH, Eskola graduatua, LH edo parekoa jarriaz.

peoi - bai igeltserotza eta bai galdaragintzakoa  
peoi gidari

II.- Gizarte langile: dotazio kopurua aldatzen da (3tik 5era)

III.- Kiroldegiko mantenu teknikariaren dotazio kopurua aldatzen da ( 2tik 3ra). Miguel Angel Letamendi jubilatzen denean, amortizatu egingo da.

IV.- Argiketaria amortizatzeaz jarri da. 2020.11.20anjubilatu da Pedro Mugarza.

IX. 2021/03/25eko Osoko Bilkuran, Lanpostuen Zerrendan honako aldaketa onartu zen:

Lanpostuen zerrendan, IDAZKARITZAKO AOT lanpostua sortzeko proposamena onartzea. Akordio hori 2021eko uztailaren 16ko GAO-n (134. Zenbakia) argitaratu zen.

X. Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 31an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

2022ko langile-plantila aldaketa onartzea kirol-teknikariaren plaza sortzeko (A2 taldea): Karrerako funtzionario plaza. Administrazio bereziko Eskala, Azpieskala: Erdi mailako teknikaria. Beste ezaugarriak, 340 programak zituen aldi baterako programaren berak izango dira.

XI. 2022/04/28ko Osoko Bilkuran, besteak beste, 2 akordio hauek onartu ziren:

-2022ko urteko langile-plantila eta lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea, idazkaritzako administrari plazaren lanaldia, %100era igotzeko eta izena 'administrarira' aldatzeko eta Idazkaritzako administrari plaza hori HAZ zerbitzura atxikitzea, azken erabaki honen ondorioak behin administrari barne promozioa amaitzen denean izanik.

-2022ko urteko plantilla aldaketa onartzea, kale garbitzaile plaza sortzeko (E taldea): laboral finko plaza. Ezaugarriak gainontzeko kale garbitzaile plazek dutenen berak dira.

**XII.** Rodriguez Viñals enpresak 2022/03/02ko lanpostuen deskribapen dokumentua prestatu zuen. 281. zenbakidun Alkate Dekretu bidez, 2022ko martxoaren 15ekoa, Lanpostu zerrendaren aldaketa puntualaren proiektuaren entzunaldi-izapidea onartu zen (GAO-n argitaratua 2022/03/18), 15 egun balioduneko epea emanez interesdunei alegazioak aurkeztu zitzaizkien. Epe horretan 2 alegazio jaso dira, baina ez die HAZeko lanpostuei eragiten.

**XIII.** Rodriguez Viñals enpresak 2022/04/25eko lanpostuen deskribapen dokumentua prestatu zuen. Ikusita, HAZ-eko lanpostu berriak sortzea premiazkoa dela, zerbitzu horretan antolaketa egokia izateko. Igorritako dokumentuan lanpostu hauen deskribapena, funtzioak eta ezaugarriak ezartzen diren: HAZ zerbitzuaren koordinatzailea eta HAZ zerbitzuaren administraria.

**XIV.** Udalak lanpostu horien beharra du 2018ko abenduaren 5eko Osoko Bilkurak hasitako prozesua garatzeko (herritarren zerbitzuari dagozkion funtzioen esleipena Oñatiko udaleko hainbat langilerengan akordioa) eta 2018ko urriaren 19an argitaratu zen GAO-n (202. Zenbakia) Oñatiko udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ) arautzen duen behin betiko Ordenantza, betetzeko. Gainera, 2018ko abenduaren 17an udal departamentuen eta HAZ zerbitzuaren arteko protokolo sinatu zen.

Udaleko idazkariaren 18/2022 txosten juridikoa dago espedientean, 2022 maiatzaren 20koa.

Jasota dago kreditu nahiko eta egokia dagoela.

Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

**Lehenengoa.**- Udal honetako lanpostuen zerranda aldatzea ondorengo eran:

– HAZ zerbitzuaren koordinatzailea eta HAZ zerbitzuaren administraria lanpostuak sortzea, ondoren jasotzen diren ezaugarriekin:

K O D E A / C O D I G O	IZENA/ DENOMINACION	PLAZA	LANTZAREREMANAREN LAZIÓ N	ESKALAJES/CA LA	AZPI-ESKALA/SUBESCALA	KLASA/CLAS E	TALDEA/SUBGRUPO	ESPEZ/ESPEC	ESK. BER/ SING	BET/PROV ISION	BALDINTZAK/ REQUISITOS	EUSHE	D. DATA / FECHA	DEDIK./ DEDIC	OHARRAK/ OBSERVACIONES	DO/CD	BO/CE
<b>HAZ ZERBITZUA</b>																	
155	HAZ zerbitzuaren koordinatzailea	1	F	A	Kudeaketa	-	A2/C1	Administrazio azpieskalari dagozkionak	BAI	LB	Ofimatika aurreratua	3	2022-05-26	Normala	Hutsik	22	800
156	HAZ zerbitzuaren administraria	3	F	A	Administraria	-	C1	Administrazio azpieskalari dagozkionak	EZ	LO	Oinarrizko ofimatika. Erroldari eta estatistikari buruzko nozioak	3	2022-05-26	Normala	Hutsik.	19	700

**Bigarrena.**- Hasierako onespena ematea 2022ko urteko langile-plantilla aldaketari arestian aipatutako ezaugarriekin, HAZ zerbitzuaren koordinatzailea plaza (bat) eta HAZ zerbitzuaren administrari 3 plaza sortzeko.

Kontuan hartu behar da 2022/04/28ko Osoko Bilkurako akordioaren bidez Idazkaritzako administrari plaza bat HAZ zerbitzura atxikitu dela.

Gainera, akordio honen bidez, kontuhartzaitzan, barne promozioa egin eta gero hutsik geratuko den plaza, HAZ zerbitzura atxikitzea erabakitzen da.

**Hirugarrena.**- Langile-plantillan onartutako aldaketa jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, GAO-n eta udaletxeko ediktu-oholean iragarkia jarrita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko

onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko eta behin betiko onartzeko erabakia hartzeko.

**Laugarrena.-** Aldaketa horrek dakartzan gastua onartzea, kontuan hartuta Oñatiko 2022ko aurrekontuetan:

- HAZeko arduradunarentzat diru-zuzkidura jarri zela.
- Idazkaritzan 4 administrarientzat jarri zela diru-zuzkidura. 1 HAZ zerbitzura atxikituta geratu zen.
- Kontu-hartzailetzan 4 administrarientzat jarri zela diru-zuzkidura. 1 HAZ zerbitzura atxikituta geratuko da.

**Bostgarrena.-** Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Lanpostu berrien sorrerari buruzko aldaketak ondorioak izango ditu bigarren puntuan jasotzen den langile-plantilla aldaketa behin betiko onartutzat jotzen den unetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, edota egoki iritzitako beste edozein errekurtsu, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

**Seigarrena.-** Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**Zazpigarrena.-** Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

23

**10.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Goienagusi kultur elkartearen arteko hitzarmena onartzea, dirulaguntza zuzena eta jabari publikoaren emakida barne onartzea, Oñatiko Esperientzia Gelaren ekimena martxan jartzeko, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko Udalaren eta Goienagusi kultur elkartearen arteko hitzarmena onartzea, dirulaguntza zuzena eta jabari publikoaren emakida barne onartzea, Oñatiko Esperientzia Gelaren ekimena martxan jartzeko.

2022ko maiatzaren 17an egindako Euskara-Hezkuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Euskara-Hezkuntza teknikariak, Iñaki Akizu Agirrek, bere aktan jasotzen duenez.

*“Oñatiko Esperientzia Gelak. Goienagusi Debagoieneko Kultur Elkartearekin lankidetzan aritzeko proposamena aurkeztea. (2.022-693 sarrera erreg. zenb.)*

*Teknikariak azaldu du Hezkuntza zerbitzuaren aurreikuspena dela irailetik aurrera Oñatiko herrian esperientzia gelak egitasmoa martxan jartzea. Helburu horrekin eredugarriak diren esperientziak ezagutu dira batetik Oinherriren lankidetzarekin, Usurbileko eta Vic-eko esperientziak hain zuzen. Bi esperientzia hauen gaineko informazioa eman da otsaileko batzordean Ainhoa Galdosek egindako eskaerari erantzunez. Horrekin batera Ingurumena, Berdintasuna, Kirola, Kultura eta Gizarte Zerbitzuak departamentuekin kontraste bilerak egin dira Esperientzia Gelak proiektuaren hartzaile izan daitezkeen talde edo pertsona erreferenteen informazioa jasotzeko. Amaitzeko, Debagoienean gaia propio lantzen duen Goienagusi Kultur Elkartearekin harremanetan jarri gara, euren jarduna zuzenean ezagutu eta elkarlanean aritzeko dauden aukerak aztertu eta baloratzeko helburuarekin.*

Partehartze eta Hezkuntza teknikaria Goienagusiren hitzaldi bat bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuen Jose Mari Eraña Goienagusiko Lehendakariak egindako gonbidapenari erantzunez. Otsailaren 15ean, 16:30ean Goienagusi eta Oñatiko Udalaren arteko bilera ofiziala egin genuen Udalean. Goienagusi Kultur Elkarteke zuzendaritzako hiru kide batetik, Jose Mari Eraña Lehendakaria tartean, eta bestetik Udalaren ordezkari Izaro Elorza alkatea eta Hezkuntza eta Partaidetza departamentuetako zinegotzi eta teknikariak izan ginen.

Bileran Goienagusi Kultur Elkarteke kideek euren jardunaren berri eman zuten, banatutako 2021eko memoria txostenean laburbiltzen dena.

Udalak bileran elkarlanerako proposamen zehatza aurkeztu zion Goienagusi elkarteari honako klabe hauetan oinarritzen dena:

- Oñatin, ohiko bere jardunaren barruan, eta Arrasate eta Bergarako herrietan gauzatutako hitzaldien osagarri, Goienagusik urritik ekainera, ikasturteak dirauen egutegian, asteroko maiztasunarekin hitzaldia antolatzea.

-Oñatiko Udala, Goienagusik Oñatin duen bazkidetza mugatuaren jakitun (4 bazkide), finantziazio aldetik horrek suposatzen duen muga konpentsatzeko, maiztasun horrekin hitzaldia antolatzeak sortzen zuen diru zuloa estaltzeko prestutasuna izango luke.

Goienagusiko kideek Oñatiko Udalaren proposamena Goienagusiko zuzendaritza taldean aztertu eta erantzun bat emateko konpromisoa hartu zuten.

2022-02-28 dantan, 2022-693 sarrera erregistroa duen eta jarraian traskribatzen den gutunaren bitartez erantzun zion eskaerari Goienagusiko zuzendaritzak, Udalaren eskaera behin aztertuta:

2022ko otsailaren 21ean

Izaro Elorza, Oñatiko Alkate agurgarri hori:

Lehenik eta behin, aurreko hilearen 15ean alkate anderea, hezkuntza eta partehartze zinegotziak eta sail horietako teknikariek izan genuen bileragatik eskerrak eman nahi dizue Goienagusik.

Ohoretzat hartu dugu Oñatiko Udalak esperientzia eskola moduko ekimena martxan jartzeko orduan, Goienagusiren ibilbidea eta egungo errealitatea ezagutzeko egin duen ahalegina.

Gaur bertan Zuzendaritza Batzordeak egin dugun bileran, arretaz aztertu dugu Oñatiko Udalaren proposamena, alegia, asteroko Goienagusik hirugarren hitzaldi bat Oñatin antolatzea.

Hausnarketa sakon baten ondoren, asteroko hirugarren hitzaldi horren inguruan zera ondorioztatu dugu: gure barne-baliabideak urri samarrak direla aparte utzita, gure eskualde-izaeraren aurka joango ginatekeela, luzatu diguzuen proposamena - baldintza horietan- onartuko bagenu.

Beste elkarlan eredu baten murgiltzeko prest gaudela berretsi nahi dizuegu eta, hortaz, hona hemen gure proposamena izan daitekeena eta, bere kasuan, gure Batzar Orokorraren onarpena beharko lukeena: 2022ko urritik aurrera gure bazkidegoari begira jorratzen ditugun hitzaldien ekitaldi bat 15ero Oñatin burutzea, bertako herritarrentzat sarrera librea izanik.

Horretarako, Oñatiko Udalak gela, bitarte teknikoak eta publizitatearen ardua hartuko luke baina ez liguke inolako ordainketa berezirik egin beharko, nahikoa izanik, eskualdeko beste udalek -Arrasate, Bergara- egiten dutenaren antzera, urtero -aurkeztutako eskaera eta plangintzaren arabera- legokigukeen diru-laguntza esleitzearekin.

Beste aukera honek, osorik ez bada ere, zuen asmoak beteko dituelakoan, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

Jose Mari Eraña

GOIENAGUSI-ren Lehendakaria

Martxoaren 1ean bildu ginen Izaro Elorza alkatea buru genuela Partaidetza eta Hezkuntza departamentuetako zinegotzi eta teknikariak. proposamena aztertu eta erabaki bat hartzeko. Goienagusik egindako proposamenak Oñatiko Udalaren hasierako nahia, hau da, asteroko jarraikortasunarekin Oñatin hitzaldi bat antolatzeko eskaera guztiz betetzen ez duen arren,

Goienagusik aurkeztutako proposamenaren alde egitea erabaki zen, honako arrazoiengan oinarrituta:

.-Debagoienean Esperientzia Gelak egitasmoaren esparruan eragile naturala Goienagusi Kultur Elkarte da, egun bere jarduna sustatuta Arrasate eta Bergaran duena.

.-Oñatiko Udalak lankidetzaren publiko-sozialean sinesten du, eta Goienagusirekin sinergia horiek elikatu eta indartzearen aldeko apustua egiten du.

.-Goienagusi elkartearen 10 urteko esperientziak, antolatutako hitzaldien eta ekintza osagarrien kalitate mailak, Oñatin Esperientzia gela jarduna arrakastatsua izango dela bermatzeko oinarri sendoa dira.

.-Oñatiarrek Udalak hasiera batean nahiko lukeen asteroko jardun hori Bergara eta Arrasaten izango diren hitzaldietara joateko aukerarekin konpentsatzen da neurri batean.

.-Bailara mailako jardunak eta elkarlanak aberasten du esperientziak partekatu eta lagun berriak egiteko aukera.

Gauzak horrela, Tekniariaren proposamena da Udalak Goienagusik Esperientzia gelak Oñatin martxan jartzeko egindako proposamenaren alde egitea, honako baldintzapean:

.-Goienagusi Kultur elkarteak 2.022-2.023 ikasturtean hamabost-ean behin Oñatin dohako hitzaldi irekia antolatzeko konpromisoa bete beharko du.

.-Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du 2.022-2.023 ikasturtean elkarteari dirulaguntza emango diola (600 eta 800 euro artekoa), Bergarako eta Arrasateko Udalek egiten dutenaren pare. Hitzaldiak eta ekintza osagarriak Oñatin garatzeko beharrezko azpiegituren lagapena egingo du, dagokion teknikariaren zerbitzua bermatzearekin batera. Amaitzeko, Oñatin gauzatuko diren ekitaldien komunikazioaren ardua hartuko du bere gain Udalak.

Udal kontuhartzalearen eta idazkariaren irizpenari jarraiki, elkarlan mota honek dituen ezaugarriengatik lankidetzaren hitzarmen batean jaso beharko dira elkarlanaren helburuak eta alde bakoitzaren konpromisoak. Lankidetzaren hitzarmen horrek Oñatiko Udalaren Batzar Orokorraren onespina jaso beharko du, legeak hala aginduta.



Goienagusi elkartetik jasotako elkarlan proposamenari Izaro Elorza alkateak sinatutako gutunaren bitartez erantzungo zaio Batzordea jakinaren gainean geratu da.

2.022-04-26an egindako Euskara-Hezkuntza Batzordean honakoa informatu zen:

7. Esperientzia gelen jarduna Oñatin martxan jartzeko Goienagusi Kultur elkartearen erantzunaren berri ematea.

Martxoaren 15eko Euskara Hezkuntza batzordean Oñatiko Esperientzia Gelak. Goienagusi Debagoieneko Kultur Elkartearekin lankidetzan aritzeko proposamena aurkeztea. (2.022-693 sarrera erreg. zenb.) gaia aztertu ondoren honako erabaki proposamena adostu zuen batzordeak

Udalak Goienagusik Esperientzia gelak Oñatin martxan jartzeko egindako proposamenaren alde egitea, honako baldintzapean:

.-Goienagusi Kultur elkarteak 2.022-2.023 ikasturtean hamabost-ean behin Oñatin dohako hitzaldi irekia antolatzeke konpromisoa bete beharko du.

.-Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du 2.022-2.023 ikasturtean elkarteari dirulaguntza emango diola (600 eta 800 euro artekoa), Bergarako eta Arrasateko Udalek egiten dutenaren pare. Hitzaldiak eta ekintza osagarriak Oñatin garatzeko beharrezko azpiegituren lagapena egingo du, dagokion teknikariaren zerbitzua bermatzearekin batera. Amaitzeko, Oñatin gauzatuko diren ekitaldien komunikazioaren ardurak hartuko du bere gain Udalak.

Udal kontuhartzailearen eta idazkariaren irizpenari jarraiki, elkarlan mota honek dituen ezaugarriengatik lankidetzak hitzarmen batean jaso beharko dira elkarlanaren helburuak eta alde bakoitzaren konpromisoak. Lankidetzak hitzarmen horrek Oñatiko Udalaren Batzar Orokorraren onspena jaso beharko du, legeak hala aginduta. Goienagusi elkartetik jasotako elkarlan proposamenari Izaro Elorza alkateak sinatutako gutunaren bitartez erantzungo zaio Batzordea jakinaren gainean geratu da.

Goienagusi elkarteak ondorengo gutunaren bitartez erantzun dio Izaro Elorza alkateak apirilaren 7an bidalitako gutunari eta erabakiaren ziurtagiri ofiziala gehitu:

2022ko apirilaren 7an

Oñatiko Alkate agurgarria,

Aurreko hilearen 18ean alkate andereak bidalitako gutuna aintzakotzat hartu eta bertan agertzen den lankidetzak proposamena apirilaren 4an burututako Goienagusiko Batzar Orokorrera eraman eta bertan onartu zen honekin batera doakizuen ziurtagiriak agertzen duen bezala.

Hala ere, hartutako erabakia 2022-2023 ikasturtera osora mugatzen da eta Oñatiko biztanleen artean bazkideak erakartzea Goienagusin helburua izanik, Oñatitik kanpo izango diren hitzaldietara oñatiarrek -era librean joatearen aukera Gabonetan amaituko da, ondoren horretarako bazkideak behar izango direlarik.

Era horretan, ikasturteko lehen hiruhilekoan Goienagusik Oñatitik jasotako bazkideak aztertu ondoren, lankidetzak hau 2022-2023 ikasturtea baino haratago heda daitekeen ala ez 2023ko lehenengo Batzar Orokorrak erabakiko du.

Baldintza honek lankidetzarako eragozpenik ekarriko ez duelakoan, zuen hitzarmen zirriborroaren zai gelditzen gara.

Jose Mari Eraña

Lehendakaria

GOIENAGUSI

Gutuna batzordean irakurrita baldintza horien pean elkarlanarekin aurrera jarraitzeko neurriak hartzea proposatu da.

Esperientzia gelen egitasmoa Oñatin martxan jartzeko Oñatiko Udalaren eta Goienagusi elkartearen arteko elkarlan akordioari forma lankidetzak hitzarmen bitartez emango zaio. Udalak emango duen dirulaguntza kopurua argitu eta azpiegiturari eta komunikazioari dagozkion aspektuak findu behar dira.

Maiatzeko batzordean lankidetzak hitzarmen proposamena aurkeztea aurreikusten da.

Batzordea jakinaren gainean geratu da.

Hona arte, egitasmo honen aurrekariak.

Esperientzia Gelen jarduna Oñatin martxan jarri ahal izateko ezinbesteko aurrebaldintza da Goienagusi Elkartearekin lankidetzak hitzarmena sinatzea Idazkariak eta Kontuhartzaileak emandako jarraibideak betez.

Lankidetzak hitzarmen dokumentua Batzordean aurkeztu da eta Batzordearen oniritziarekin Osoko Bilkurari proposatzen zaio Esperientzia Gelen jarduna 22-23 ikasturtean Oñatin indarrean jartzeko Goienagusi elkartearekin lankidetzan aritzeko aurkeztutako lankidetzak hitzarmen proposamena onar dezala.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

**40/2015 Legea**, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

5. Finantza-konpromisoak jasotzen dituzten hitzarmenek finantzen aldetik iraunkorrak izan beharko dute, eta sinatzen dituztenek ahalmena izan beharko dute hitzarmena indarrean dagoen bitartean beren gain hartutakoak finantzatzeko.

6. Sinatzaileek konpromisoa hartzen duten finantza-ekarpenak ezingo dira izan hitzarmena gauzatzetik eratorritako gastuak baino handiagoak.

7. Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen duenean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatu daitezkeen autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusitakoa bete beharko du.

8. Alderdiek adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehatzua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalgo dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Halaber, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa honakoa xedatzen du jabari publikoko emakidei buruz:

93. artikulua. Jabari publikoko emakidak.

“1. Herri-jabariko ondasunen gaineko emakidak lehia-araubidean emango dira. Hala ere, zuzeneko emakida erabaki ahal izango da lege honen 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, salbuespenezko inguruabarrak daudenean, behar bezala justifikatuta, edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan.

4. Jabari publikoaren erabilera pribatiboko edo aprobetxamendu bereziko emakidak doakoak izan daitezke, edo kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke, edo Estatuko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren mende egon daitezke. Tasa hori uztailearen 13ko 25/1998 Legearen I. tituluaren VIII. kapituluaren dago araututa (25/1998 Legea, Estatuko eta tokiko tasen lege-araubidea aldatu eta ondare-prestazio publikoak berrantolatzeari buruzkoa).

Ez dira tasapean egongo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik emakidadunari, edo, onura hori egonda ere, erabilerak edo aprobetxamenduak onura hori deuseztatzen duten baldintza edo kontraprestazioak badakarzkio onuradunari.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, inguruabar hori emakidaren baldintza-agirietan edo klausuletan jasoko da.”

137. artikulua:

“4. Zuzeneko esleipena honako kasu hauetan erabaki ahal izango da:

B) Eskuratzailerak irabazi-asmorik gabeko erakundea denean, onura publikokotzat deklaratu, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo erlijio-elkarteak denean.

C) Higiezin beharrezkoa denean zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko edo a) eta b) lerroketan aurreikusitako ez bestelako pertsona batek interes orokorreko helburu bat betetzeko.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 atalean honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Euskara-Hezkuntza teknikariak, Iñaki Akizu Agirrek, egindako 2022ko maiatzaren 17ko txostena dago espedientean, non dirulaguntza zuzena eta doako lagapen zuzena egitea justifikatzen den.

Azaldukoagatik, eta Euskara-Hezkuntza Batzordearen onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Oñatiko Udalaren eta Goienagusi kultur elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, arestian aipatutako zirriborro dokumentuaren arabera. Hitzarmen honek Goienagusi kultur elkarteari diru-laguntza zuzena emateko hitzarmen arautzailea barne hartzen du. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

**Bigarrena.**- Hitzarmen honek 2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30a arte iraupena izango du, eta bi aldeak ados agertuz gero, hitzarmena urtez urte luzatu ahal izango da (gehienez 4 urte gehiago).

**Hirugarrena.**- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea (750€), 2022ko aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

**Laugarrena.**- Elkarteak jardura egin ondoren zuriketa aurkeztu beharko du. Dirulaguntzaren zuriketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Euskara-Hezkuntza Batzordearen proposamena ikusita.

**Bostgarrena.**- Jabari publikoko emakida zuzena eta doakoa onartzea, adierazten diren udalaren higiezin publikoak (kultur etxeko zine aretoa eta Santa Ana antzokia) erabiltzeko, 33/2003 Legearen 137.4 artikuluen arabera.

**Seigarrena.**- Diru laguntza zuzen hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

**Zazpigarrena.**- Hezkuntza teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

**Zortzigarrena.**- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikuluen babesean.

**Bederatzigarrena.**- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Hamargarrena.**- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

**Hamaikagarrena.**- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

---

Gaia aztertuta, eta Euskara-Hezkuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**11.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udalaren jabetzakoak diren Foruen Enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakien 2 eraikinen erabilera Txantxiku Ikastola Kooperatibaren aldekoaren lagapena eguneratzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Txantxiku Ikastolaren eskaera, 2022ko udan egingo dituen eraberitze lanak direla eta Foruen enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakian kokatuta dauden udal eraikinen lagapena eguneratzeko eskaera onartzea (2022-1.732 sarr. erreg.).

2022ko maiatzaren 17an egindako Euskara-Hezkuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Euskara-Hezkuntza teknikariak, Iñaki Akizu Agirrek, bere aktan jasotzen duenez.

“Txantxiku Ikastolaren eskaera. 2022ko udan egingo dituen eraberitze lanak direla eta Foruen enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakian kokatuta dauden udal eraikinen lagapena eguneratzeko egindako eskaera aztertzea (2022-1.732 sarr. erreg.).

Julen Anakabe Urzelai jaunak Txantxiku Ikastolaren izenean idatzia aurkeztu du honako azalduz: Txantxiku Ikastola, Koop. Elk.-ak bere Hezkuntza eskaintza aurrera eramateko erabiltzen dituen Udal jabetzakoak diren eraikinen lagapena 2031ko abuztuaren 31ra artekoa da.

2022ko udan egingo diren obrak kontuan izanda, lagapenaren luzapena egitea beharrezkoa da. 2022ko maiatzaren 3an Txantxiku ikastolako Errektore Kontseiluan obraren inguruko hausnarketa egin ondoren eta inbertsioaren zenbatekoa 1.300.000 ingurukoa dela kontuan izanik, Oñatiko Udalarari lagapena beste 25 urtetarako luzatzeko proposamena egitea erabaki zen. 25 urterako luzapena eskatzeko arrazoi nagusiak hauek dira:

Udalaren jabetzakoak den eraikinean hobekuntzak egingo direla legeak dioenera egokitzeko:

o Instalazio elektriko osoaren aldaketa (Inspección Instalaciones Eléctricas de Baja Tensión).

o Barruko eskailera berri bat egitea, sarrera-irteerak hobetzeko eta larrialdi egoeratan ebakuazioa errazteko.

Egingo diren inbertsio nagusien bizi iraupena 25 urte baino gehiagokoa izatea.

Teknikariak informatu du Txantxiku Ikastolak 2.016 urtean Konfidantzaren Pedagogia metodologia eraberritzailea martxan jartzeko San Juan kalea 1 eraikinean gauzatzeko eraberritze lanen kontestuan, Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko apirilaren 28an egindako bileran ondorengo erabakia hartu zuela:

Gaia aztertu ondoren eta Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena aldekoa dela kontutan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak Udal Plenoari eskatzen dio Udalaren jabetzakoak diren Foruen Enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakien erabilera Txantxiku Ikastola Kooperatibari laga diezaiola honako baldintzapean:

.-Lagapena doan izango da ondorengo baldintzak betetzen diren bitartean: lokalen erabileraren helburuak herriko biztanleentzat onuragarri izatea eta aberasteko helbururik gabeko interes publikoko erakunde pribatua izatea eraikinen titularra.

.-Lokalean obra edo antzekoren bat egitea nahi izanez gero, Udalarari eskatu beharko diote dagokion baimena, obrak ikastetxearen kontura izanik.

.-Ikastetxeak aipatutako eraikina beraien beharretara egokitzeko egin ditzakeen obrak edozein kasutan eraikinaren alde geratuko dira, Udalak obra edo hobekuntza horien aldeko inongo kalteordain eskubide konpromisorik hartzen ez duelarik.

.-Helburua: Hezkuntza eskaintza.

.-Eraikinaren garbitasuna, mantenimentua, argia, ura, telefonoa, berogailua, eta aseguru polizaz ikastetxea arduratu beharko da.

.-Ikastetxearen lan hizkuntza euskara izango da.

.-Lagapena 15 urterako onartzea, 2016ko irailaren 1ean hasi eta 2031ko abuztuaren 31 bitartean

Gobernu taldean gaia aztertuta 2.022ko irailaren 1etik hasita hamabost urterako lagapen berria onartzea proposatzen da, 2.016an onartutako lagapenaren baldintza berdinetan, obraren izaera eta kostua ordura parekatzen direla kontutan izanda.

Gauzak horrela Euskara-Hezkuntza batzordeak Udal Osoko bilkurari proposatzen dio Txantxiku Ikastolari bi eraikinen lagapena eguneratzea, honako baldintzapean:

.-Lagapena doan izango da ondorengo baldintzak betetzen diren bitartean: lokalen erabileraren helburuak herriko biztanleentzat onuragarri izatea eta aberasteko helbururik gabeko interes publikoko erakunde pribatua izatea eraikinen titularra.

.-Lokalean obra edo antzekoren bat egitea nahi izanez gero, Udalari eskatu beharko diote dagokion baimena, obrak ikastetxearen kontura izanik.

.-Ikastetxeak aipatutako eraikina beraien beharretara egokitzeko egin ditzakeen obrak edozein kasutan eraikinaren alde geratuko dira, Udalak obra edo hobekuntza horien aldeko inongo kalteordain eskubide konpromisorik hartzen ez duelarik.

.-Helburua: Hezkuntza eskaintza.

.-Eraikinaren garbitasuna, mantenimentua, argia, ura, telefonoa, berogailua, eta aseguru polizaz ikastetxea arduratu beharko da.

.-Ikastetxearen lan hizkuntza euskara izango da.

.-Lagapena 15 urterako onartzea, 2022ko irailaren 1ean hasi eta 2037ko abuztuaren 31ra bitartean.”

Halaber, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa honakoa xedatzen du jabari publikoko emakidei buruz:

93. artikulua. Jabari publikoko emakidak.

“1. Herri-jabari-ondasunen gaineko emakidak lehia-araubidean emango dira. Hala ere, zuzeneko emakida erabaki ahal izango da lege honen 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, salbuespenezko inguruabarrak daudenean, behar bezala justifikatuta, edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan.

4. Jabari publikoaren erabilera pribatiboko edo aprobetxamendu bereziko emakidak doakoak izan daitezke, edo kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke, edo Estatuko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren mende egon daitezke. Tasa hori uztailaren 13ko 25/1998 Legearen I. titularen VIII. kapituluaren dago araututa (25/1998 Legea, Estatuko eta tokiko tasen lege-araubidea aldatu eta ondare-prestazio publikoak berrantolatzeari buruzkoa).

Ez dira tasapean egongo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik emakidadunari, edo, onura hori egonda ere, erabilerak edo aprobetxamenduak onura hori deuseztatzen duten baldintza edo kontraprestazioak badakarzkio onuradunari.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, inguruabar hori emakidaren baldintza-agirietan edo klausuletan jasoko da.”

137. artikulua:

“4. Zuzeneko esleipena honako kasu hauetan erabaki ahal izango da:

B) Eskuratzaiilea irabazi-asmorik gabeko erakundea denean, onura publikokotzat deklaratu, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo erlijio-elkarte denean.

C) Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko edo a) eta b) lerrokadetan aurreikusitakoez bestelako pertsona batek interes orokorreko helburu bat betetzeko.”

Gaia azterturik, eta Euskara eta Hezkuntza Batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Udalaren jabetzakoak diren Foruen Enparantza 4 eta San Juan kalea 1 zenbakien 2 eraikinaren erabilera Txantxiku Ikastola Kooperatibaren aldekoaren lagapena eguneratzea, honako baldintzapean:

.-Lagapena doan izango da ondorengo baldintzak betetzen diren bitartean:lokalean erabileraren helburuak herriko biztanleentzat onuragarri izatea eta aberasteko helbururik gabeko interes publikoko erakunde pribatua izatea eraikinaren titularra.

.-Lokalean obra edo antzekoren bat egitea nahi izanez gero, Udalari eskatu beharko diote dagokion baimena, obrak ikastetxearen kontura izanik.

.-Ikastetxeak aipatutako eraikina beraien beharretara egokitzeko egin ditzakeen obrak edozein kasutan eraikinaren alde geratuko dira, Udalak obra edo hobekuntza horien aldeko inongo kalteordain eskubide konpromisorik hartzen ez duelarik.

.-Helburua: Hezkuntza eskaintza.

.-Eraikinaren garbitasuna, mantenimentua, argia, ura, telefonoa, berogailua, eta aseguru polizaz ikastetxea arduratu beharko da.

.-Ikastetxearen lan hizkuntza euskara izango da.

.-Lagapena 15 urterako onartzea, 2022ko irailaren 1ean hasi eta 2037ko abuztuaren 31ra bitartean.

**BIGARRENA.**- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Euskara eta Hezkuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**12.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko hitzarmena, Euskaraldiaren antolaketan eta dinamizazioan lankidetzan aritzeko onartzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko hitzarmena, Euskaraldiaren antolaketan eta dinamizazioan lankidetzan aritzeko onartzea.

2022ko maiatzaren 17an egindako Euskara-Hezkuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Euskara teknikariak, Xabier Zabaleta Echavek, ziurtatzen duenez.

*“Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko hitzarmena, Euskaraldiaren antolaketan eta dinamizazioan lankidetzan aritzeko*

*2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean izango da Euskaraldiaren 3. edizioa. Hori dela eta, Euskaraldia Oñatin antolatu eta dinamizatzeko, lankidetzan-hitzarmena sinatuko dute Oñatiko Udalak eta Euskaltzaleon Topagunea Federazioa elkarrekin.*

*Hitzarmen honen xedea da Euskaraldiaren antolaketan bi aldeek eskubide eta betebeharrak finkatzea.*

*Euskaltzaleon Topagunea Federazioak Euskaraldiko antolaketa- eta kudeaketa-lanak dinamizatuko ditu Oñatin, eta, lan horiek egiteko, Topagunea Federazioak dinamizatzaile bat kontratatuko du lau hilabetez, lanaldi erdiz, irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.*

*Oñatiko Udalak dirulaguntza emango dio Topagunea Federazioari hitzarmenaren bigarren klausulan ezarritakoaren arabera. Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 9.643 eurokoa izango da, eta hitzarmenaren iraupena beraz sinatzen denetik 2022ko abenduaren 31ra artekoa izango da.*

*Euskara teknikariak proposamenaren gaineko azalpenak eman ditu eta batzordekideek, hitzarmen-proposamena aztertu ondoren, hitzarmena sinatzearen aldeko irizpena eman dute.*

*Horrenbestez, gaia aztertu ondoren, eta Idazkariaren eta Kontu-hartzailearen onospena kontuan hartuta, Euskara Hezkuntza Batzordeak erabaki hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:*

*.- Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko hitzarmena sinatzea eta alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.*

*.- Euskaltzaleon Topagunea Federazioa elkarrekin 2022an 9643 euroko dirulaguntza zuzena onartzea”*

*Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.*

*38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:*

*22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:*

*C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”*

*30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagirak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

*34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”*

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Gaia azterturik, eta Euskara-Hezkuntza Batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Oñatiko Udalaren eta Euskaltzaleon Topagunearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, arestian aipatutako zirriborro dokumentuaren arabera. Hitzarmen honek Euskaltzaleon Topaguneari diru-laguntza zuzena emateko hitzarmen arautzailea barne hartzen du. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

**Bigarrena.**- Hitzarmen honek sinatzen denetik 2022ko abenduaren 31ra artekoa izango da. Igarotakoan, indarrrik gabe geratuko da. Ezingo da luzatu isilpeko luzapenarekin.

**Hirugarrena.**- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea (9.643€), 2022ko aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko uanean.

**Laugarrena.**- Elkarrekin jarduera egin ondoren zuriketa aurkeztu beharko du. Dirulaguntzaren zuriketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Euskara-Hezkuntza Batzordearen proposamena ikusita.

**Bostgarrena.**- Diru laguntza zuzen hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

**Seigarrena.**- Euskara teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

**Zazpigarrena.**- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

**Zortzigarrena.**- Ebazpen hau interesdunari eta kontuhartzaileari jakinaraztea.

**Bederatzigarrena.**- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

---

Gaia aztertuta, eta Euskara-Hezkuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**13.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Euskara Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarriak aldatzea eta 2022ko deialdia onartzea, Euskara-hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 17an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Euskara Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarriak aldatzea eta 2022ko deialdia onartzea.

2022ko maiatzaren 17an egindako Euskara-Hezkuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Euskara teknikariak, Xabier Zabaleta Echavek, ziurtatzen duenez:

*“Euskara-Hezkuntza Batzordean Euskara Departamentuaren kontura ematen diren urteroko dirulaguntzen deialdia egiteko proposamena egin zuen Euskara Batzordeak urtarrilean egindako bileran.*

*Idazkariari kontsulta eginda, hark adierazi zuen oinarriak 39/2015 legearen aurretik onartutakoak zirela eta lege horren arabera egokitu behar zirela.*

*Euskara teknikariak adierazi du oinarriak aldatu direla 39/2015 legera egokitzeko eta, horrez gain, 2022an dirulaguntza lerro berri bat zabalduko dela TicketBai aplikazioko softwarea euskaraz jartzeko gastuak diruz laguntzeko.*

*Hortaz, 2022an, Euskara departamentuaren kontura emango diren dirulaguntzek hiru lerro hauek izango dituzte:*

- .- Errotuluak, irudi korporatiboa eta web gunea euskaraz jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak.*
- .- Euskara ikasteko dirulaguntzak*
- .- “TicketBAI” fakturazio sistemarako euskarazko softwarea erosteko dirulaguntzak*

*Dirulaguntzen oinarri orokorrak eta lerro bakoitzaren oinarri espezifikoak aztertu ondoren, batzordekideek Euskara Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarriak aldatzea eta 2022ko deialdia egitearen aldeko irizpena eman dute.*

*Horrenbestez, gaia aztertu ondoren, eta Idazkariaren eta kontu-hartzailearen onespena kontuan hartuta, Euskara Hezkuntza Batzordeak erabaki hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:*

- .- Euskara Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarrien aldaketa onartzea eta 2022ko deialdia egitea.”*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikulua) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulua hauek:

-8.3 artikulua: *“Lege honetan aipatzen diren diru-laguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da:*

*A) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.*

*B) Administrazio emaileak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.*

*C) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.”*

-30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagirak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

-34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

*Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”*

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.



Gaia aztertutik, eta Euskara-Hezkuntza batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Euskara Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarrien aldaketa onartzea.

**Bigarrena.**- 2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, gastua onartzea, dagokion, kontu sailaren eta bere lotespen mailaren kontura.

**Hirugarrena.**- Onartzea ondoren aipatzen den diru-laguntzen 2022ko deialdia.

**Laugarrena.**- Oinarriak eta deialdia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Oinarriak eta deialdia indarrean jarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

**Bostgarrena.**- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikariari jakinaraztea.

**Seigarrena.**- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertzeako Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekursorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekursio aurkez daiteke.

---

Gaia aztertuta, eta Euskara-Hezkuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

#### **14.- Hala badagokio, presako gaiak.**

Alkatearen eskariz, presazko gai bat (Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordekoa) gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea (espedientea deialdia egiterakoan ez zegoen oraindik prest eta premiazkoa da espediente horren erabaki bat hartzea) eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hau zerrendan sartzeko erabaki da 14 boto aldekoekin (9 EH BILDU + 5 EAJ).

##### **14.1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko bigarren laguntza deialdia onartzea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko maiatzaren 24an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko bigarren laguntza deialdia onartzea.

2022ko maiatzaren 24an egindako Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen akta, Aitor Gerenabarrena Osa, Nekazaritza-auzoak eta ingurumen Teknikaria eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen idazkariak, sinatua. Honela dio:

*“Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko bigarren laguntza deialdia.*

*2021eko azaroaren 23an egindako auzo-alkate foroan, besteak beste, Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileen zirriborroa aurkeztu zen.*

2022ko otsailaren 15ean Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, aipatu oinarri arautzaileak onartu ondoren, 2022ko otsailaren 24an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko aurreneko laguntza deialdia egitea onartu zituen. Deialdia eta oinarri arautzaileak 2022ko martxoaren 10ean argitaratu ziren GAOn.

2022ko maiatzaren 17an egindako auzo-alkate foroan Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren aurreneko laguntza deialdiaren ebazpen proposamena aztertu zen. 2022ko aurreneko deialdiaren emaitzak aztertu ondoren, bigarren deialdiari begira, oinarri arautzaileei egoki ikusten diren aldaketak egin eta gero, bigarren deialdi bat egitea adostu zen.

Dirulaguntza gehigarri honen xedea da: auzoek bultzatutakoak diren baina Udalaren eskumenekoak zein ardurakoak diren lanetan edo auzoaz gaindiko herri onura bat izan dezaketen egitasmoetan, auzoek egitasmo horretarako bideratutako finantziarioari Udalak diru ekarpen gehigarri batekin laguntzea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua xedatutakoaren arabera diru-laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea da. Hortaz, dirulaguntza gehigarriak banatu ahal izateko, deialdia egin aurretik dirulaguntzen banaketa arautuko duten oinarri arautzaileak onartu beharra daude.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez honako erabakiak har ditzala eskatu dio Udal Osoko Bilkurari:

Lehenengo: auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren kontura emango diren oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarren: diru-laguntza lerroen 2022ko bigarren deialdia onartzea, bide horretan, 1 1104.481.410.00.19 2022 (5507) kontu sailaren kargura finantzatzea (32.230,53 €)

Hirugarren: GAOn argitaratzen den egunetik 30 eguneko epea ematea diru-laguntza eskaerak egiteko.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatuzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren kontura emango diren oinarri arautzaileak onartzea, espedientean dagoen zirriborroaren arabera.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza lerroen 2022ko bigarren deialdia onartzea, bide horretan, 1 1104.481.410.00.19 2022 (5507) kontu sailaren kargura finantzatzea (32.230,53 €). Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** GAO n argitaratzen den egunetik 30 eguneko epea ematea diru-laguntza eskaerak aurkezteko.

**LAUGARRENA.-** Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

---

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

#### **15.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.**

Ez daude.

35

#### **16.- 2022ko apirilaren 25tik 2022ko maiatzaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 430 zenbakitik 555 zenbakira.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **17.- 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (9., 10., 11. Eta 12. Saioak).**

Toki Gobernuko batzordearen 9. (2022/04/07koa), 10. (2022/04/28koa), 11. (2022/05/05koa) eta 12. (2022/05/12koa) saioen akten berri eman da.

Galdos andreak galdetzen du zehapen espediente bat mahai gainean uztearen arrazoiei buruz.

Elorza andreak erantzuten dio, alde zuzenetik zerbait aztertu behar zela, baina gaur dagoeneko akordio hartu dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **18.- 2021eko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.**

2022ko maiatzaren 10eko Ogasun batzordean txosten honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskul Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

*“Kontu-hartzaileak 2021eko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostena egin du:*

“2021eko FINANTZA KONTROLAREN ETA KONTU-HARTZE EGINKIZUNAREN LABURPEN TXOSTENA

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena. 15, 28 eta 37.artikuluak.

AURREKO OHARRAK

Dokumentu hau Osoko Bilkurari bidaliko zaio 32/2018 FDren 37 artikulua dioena betez. Dokumentu honetan 2021eko ekitaldiko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunen informazio esanguratsuena jasotzen da, eta kudeaketa organoei eta Alkateari bidali zaio, hala dagokionean, BKFDan araututako izapidetzearen arabera. Tokiko sektore publikoko erakundeen kontabilitate informazioa eta kontuen auditoretza txostenak egoitza elektronikoko korporatiboetan argitaratu beharko dira.

Oñatiko Udal Aurrekontuko AURREKONTUAK GAUZATZEKO ARAUAN 5. eta 6. artikuluetan jasotzen da funtzio ikuskatzailea ikuskatze-mugatu bidez egingo dela eta ondoren, kontrol finantzari osoa egingo dela; 2021ean mota ezberdinetako 17 espedienteri egin zaie kontrol osoa.

TXOSTENAREN LEHEN ZATIA

Kontu-hartzaitzak Osoko Bilkurari toki erakundeko Alkateak eta Osoko Bilkurak egindako banaketan edo finantza zaintzaren arloan eskudun den sailak egindako txostenen aurka hartutako erabaki guztien urteko txosten bat eta sarreraren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpen bat bidaltzea derrigorrezkoa izanik,

Gainera egindako txostenen zerrenda sartu behar dela kontuan hartuz, kontu-hartze eginkizuna derrigorrezkoa denean eta egin ez denean,

Derrigorrezkoa izanik, halaber, Kontu-hartzaitzak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari informazio hori bidaltzea, toki erakundearen Osoko Bilkura informatu ondoren, kontu orokorra egiten denean,

Adierazitako informazioaren zerrenda egin da, 2021 ekitaldiari dagokiona, udal Kontu-hartzaitzan dagoen datuen arabera:

A. ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

EBAZPENA EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	FISKALIZ.TXOSTENA REN ZK.	FINANTZA ZAINZAKO ORGANOAREN TXOSTENA
TGB 2021-04-29	7. puntua: Argindar horniduraren kontratua	2021/1	Kontu-hartzaitza-Eragozpen-txosten entengarria

B. EZ ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

EBAZPENA EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	FISKALIZ.TXOSTENA REN ZK.	FINANTZA ZAINZAKO ORGANOAREN TXOSTENA

EZ DAGO

C. KONTUHARTZE EGINKIZUNA EZ BETETZEA

ONARTZEKO EDO ORDAINTZE KO EBAZPENA EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	KONTU-HARTZE EGINKIZUNA EZ BETETZEAREN TXOSTENAREN ZK.	KONTU-HARTZE EGINKIZUNA BETE GABE HARTUTAKO EBAZPENAK

EZ DAGO

D. SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK  
EZ DAGO.

E. FROGATU BEHARREKO ORDAINKETEN ETA KUTXA FINKOKO AURRERAKINEN KONTU FROGAGARRIAK  
Frogatu beharreko kontuak eta kutxa finkoko aurrerakinak kontrolatzean lortutako emaitzak,  
honako hauek dira: EZ DAGO ERAGOZPENIK

#### TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA

Alkatearen bitartez 2021 ekitaldian egindako finantza kontroleko eta kontu-hartze eginkizuneko jarduketek sortutako emaitzarik esanguratsuenak dakartzan urteko txostena Osoko Bilkurari bidaltzea derrigorrezkoa izanik,

Adierazitako informazioaren zerrenda egin da, 2021 ekitaldiari dagokiona, udal Kontu-hartzailetzan dagoen datuen arabera:

#### A. OHARRAK KONTU-HARTZE EGINKIZUNA BETETZEAN

Aurreko fiskalizazioa eta kontu-hartzea gauzatzean egindako oharretan azpimarratu beharreko intereseko alderdiak: Begira ondoren datorren “D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK”.

#### B. FINANTZA KONTROL IRAUNKORRA

Finantza kontroleko planean hautatutako jarduketan ondorioz egindako finantza kontrol iraunkorraren txostenetan ez da akats esanguratsurik antzeman.

C. AUDITORETZA Auditoretza lanak egiteko, ATTEST enpresa kontratatu da, beheko taulan agertzen den bezala.

Auditoretza hauek egin dira 2021 ekitaldian:

	KONTUENAK	BETETZEARENAK	OPERATIBOA
OÑATIKO UR JAUZIAK SA (ATTEST)	BAI/Aldeko iritzia	EZ	EZ
OÑARGI SL (ATTEST)	BAI/Aldeko iritzia	EZ	EZ

Finantza kontroleko planean hautatutako jarduketan ondorioz egindako auditoretza txostenetan eta 2021 ekitaldian, OÑATIKO UR JAUZIAK SA eta OÑARGI SL sozietate publikoaren egindako auditoretza txostenetan ez da akats esanguratsurik antzeman.

#### D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:

2021 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: "...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere."

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsunei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: "...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu beharreko gabeziak adieraziko dira." Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko lirateke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen **TXOSTENAREN LEHEN ZATIAREN A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK** azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. *Gainontzean*, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsuena aurretiazko fiskalizazio sistematiko bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuak antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldian, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzatura izaten dira.

Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2021 ekitaldian, HONAKOA EGITEA AURREIKUSTEN DA:

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen Plan Estrategiko berriari ekitea.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-aurrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardura. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrekoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulua izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epez kanpo."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## 19.- 2021eko ekintza planaren berri ematea.

2022ko maiatzaren 10eko Ogasun batzordean ekintza plana honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskul Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

Alkateak, 2021eko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren aurrean honako Ekintza Plana egin du:

"2021eko EKINTZA PLANA

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenaren 38. artikulua.

### PROZEDURA

Toki erakundeko Alkateak ekintza plan hau formalizatzen du 2021eko finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko Laburpen Txostenean ageri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Alkateak barne kontrola egitean agertutako ahulezien zuzenketaren egoeraren berri emango dio Osoko Bilkurari, organo honek aldizkako jarraipena egin dezaion Udalaren ekonomiaren eta finantzen kudeaketa hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileei.

Horretarako, honako urratsak eman dira:

1.- Goian aipatutako Laburpen Txosten hori Osoko Bilkurari igorriko zaio, eta 2022ko maiatzeko Osoko Bilkuran jakinean geratuko da.

2.- Osoko Bilkura horretarako, Oñatiko Udaleko Alkateak 2021eko Ekintza Plan hau egin du, eta Kontu-hartzailearen Laburpen Txostenaren **“TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA- D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRA”** atalean adierazitakoarekin bat egiten du, Ekintza Planean sartuz:

**“D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:**

2021 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: “...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere.”

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsuneei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: “...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu beharreko gabeziak adieraziko dira.” Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko lirateke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen **TXOSTENAREN LEHEN ZATIAREN A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK** azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. **Gainontzean**, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsua aurretiazko fiskalizazio sistematikoa bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuak antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldean, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzaturata izaten dira.

Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2021 ekitaldian, **HONAKOA EGITEA AURREIKUSTEN DA:**

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen Plan Estrategiko berriari ekitea.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalarari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-urrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardura. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrezkoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalarari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulia izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epezkano. “

Osoko Bilkurari Laburpen Txostena bidali eta 3 hilabete igaro baino lehen, organo kontu-hartzaileari bidali behar zaio Ekintza Plan hau; maiatzeko Osoko Bilkurari bidaliko zaio.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**20.- 2021eko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.**

2022ko maiatzaren 10eko ogasun batzordean txosten honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskul Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

Kontu-hartzaileak, Alkatearen 2021eko EKINTZA PLANAREN aurrean honako egokitasun-txostena egin du:

**“2021eko EKINTZA PLANAREN EGOKITASUN-TXOSTENA  
EGILEA: KONTU-HARTZAILEA**

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenaren 38. artikulua.

**PROZEDURA**

Toki erakundeko Alkateak, 2022-05-02ko dataz, Ekintza Plana formalizatu du 2021eko finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko laburpen txostenean ageri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Laburpen txostena Osoko Bilkurari igorriko zaio, 2022ko maiatzeko bilkuran jakinean geratzeko.

Laburpen Txostena Osoko Bilkurari bidali zenetik 3 hilabete igaro gabe, Ekintza-Plana organo kontu-hartzaileari bidali behar zaio; jadanik jaso du eta Egokitasuna txosten hau egiteko moduan da.

Kontu-hartzailearen iritziz, Barne Kontrol egoki baten oinarria aurretiazko fiskalizazioa da, eta unean uneko ahulezi eta gabezien berehala erantzutea.

**EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA:**

Kontu-hartzaile honek Ekintza Planaren **TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA-D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRA** atalean aipatutakoa gogoratu nahi du, berak egindako Laburpen Txostenarekin bat datozenak:

“ D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:

2021 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: “...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere.”

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsunei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: “...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu beharreko gabeziak adieraziko dira.” Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko lirateke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen **TXOSTENAREN LEHEN ZATIAren A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK** azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. **Gainontzean**, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsuena aurretiazko fiskalizazio sistematiko bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuak antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldean, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzatura izaten dira.



Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2021 ekitaldian, HONAKOA EGITEA AURREIKUSTEN DA:

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen Plan Estrategiko berriari ekitea.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-aurrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardura. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrekoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulia izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epez kanpo. ”

- Beraz, Kontu-hartzaitzak uste du plan hau EGOKIA DELA adierazitako finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko Laburpen Txostenean adierazitakoa gauzatzeko.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## 21.- Galderak eta eskaerak.

Bia in jaunak galdetzen du zein egoeratan dagoen HAPO-aren izapidetza.

Elorza andreak erantzuten dio lanean ari direla eta saiatuko direla ahalik eta azkarren hurrengo fasea izapidetzen.

Besterik ezean, 18:50ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

41

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan